

Andre Maria Zuriaren pilota txapelketa



Foru plaza
Urtero uztailean eta abuztuan

Urtero, lurraldeko pilotari afizionaturik onenek Andre Mari Zuriaren txapelketa jokatzen dute, Gasteizko jaietako hitzordu klasikoetako bat.

Hamahiru eguneko txapelketan, kadete, junior eta senior mailako hogeita hamar bikotek denboraldiari agur esaten diote plaza paregabe honetan. Gasteiz, Amurrio, Zuia, Laudio, Aramaio, Legutio, Maeztu, Agurain edo Araiako pilotariak elkartzen dira bertan.

Bikoteak osatzeko, Arabako denboraldiko sailkapena erabiltzen da, eta aurreko urteko irabazleek beste bikotekide batekin jokatzen dute.